

## 09. KOSTUAK

Kostuei erreparatuz, bi kostu mota azteertuko ditugu: Kostu finkoak eta kostu aldakorak.

Guren enpresan hona hemen **kostu aldakor** desberdinak: makineriaren kostua, materialen kostua, iragarkien kostua, banaketa kostuak.

Bestalde, **kostu finkoak**: materialaren biltegiaren eta denden alokairua, langileen soldatak, aliantzen kostuak, argia eta gasa.



Garestien izango diren baliabideak izango dira langileen soldaten kostuak edota etxeak eraikitze beharrezko materialen kostuak. Bestalde, jarduera garestiena etxeen muntaketa prozesua edo publizitatea izango dira.

Hona hemen gure enpresa sortu eta hilabete batzuetara uste dugun gastuen irudikapena. Hau bai, ez dago ahaztu beharra, **hasierako inbertsioa 60.000€**-koa izan dela.

Kostu finkoak	€
Alokairua	5.000€
Soldatak	35.000€
Elektrizitatea, gasa, WiFi-a...	4.000€
Mantenimendu gastuak	2.000€
Seguru primak	400€
<b>GUZTIRA</b>	<b>46.400€</b>

Kostu Aldakorrak	€
Materialak	30.000€
publizitatea, kolaborazioak...	5.000€
bat-bateko gastuak	300€
Gastu fiskalak	3.000€
GUZTIRA	38.300€

Orduan esan ahal dugu **gutxi gora bera** enpresa dinamika onean sartzen denean izango dituen **kostuak** hauek izango direla: **84.700€**.

Honekin **amaiera** ematen diogu kostuen atalari eta 9 atal hauen azterketari.